



190. zenbakia

· URRIA 2019 ·

# pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



## ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

### PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

### EMAILA

pulunpe@gmail.com

### ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurtzun.

### KOORDINATZAILEAK

Itziar Perez eta Garazi Zabaleta

### TIRADA

1.600 aleak

### INPRIMATEGIA

Gertu

### MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

### AZALEKO ARGAZKIA

Jaione Azpirozek, Etxalekuko bizilagunak, senarrak hazitako kalabaza erraldoia aizkoraz zatitu eta herriko plazan banatu zuen. Azalean Rosario Astizen biloba, Alaia, kalabaza gainean.

### LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira azaroaren 11an bidalia

## Benito Lertxundi - Udazken koloretan

« Udazken Koloretan,  
landen lurrinak  
zeharkatuz  
hitaz oroit  
eta higan nauk.


Zuhaitz biluziaren  
gerizpean orpondoa,  
orbelaren hilobi,  
horiz eta gorriz  
dena lokarturik,  
dena lokarturik.

Eskuratu hostoa  
xume bezain eder,  
hain soila bere heriotzean,  
zuhaitz guztia  
bizkortasunez hain betea,  
non erortze honen duintasunak  
hiri kantatzera naraman.

Berriro zuhaitzari  
so natzaiok, kezkaturik ote?...  
Joate askearen oparotasunean,  
betikotasunaren irria zirudik.  
irria zirudik.

Gatibu naukan denborak,  
bere baitan egositako  
ametsetatik isekaz  
bailegoan.

Udazken Koloretan,  
landen lurrinak zeharkatuz  
hitaz oroit eta higan nauk,  
hain soil hire heriotzean,  
hain xume, adiorik gabeko  
partitzean. »



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra





Aurten ere zozketa hemen dugu **Jostatu, jokatu, jo eta su...** Bai, jostaketan ari beharko genuke denok ere euskarazko gauzekin, baina eginahalean ari behar izaten dugu. Ez da erraza erdarazko uholde honetan bizirik irautea. Eta horrengatik ari gar **jo eta su** euskararen alde, gure herriaren alde. Ez, ez da erraza bizirik irautea. **Josta lekua** beharko luke izan Pulunpe eta hala saiatzen gara izan dadin: hemengo jendeen berri ematen, hemengo gertakizunen, hemengo eta hango kirol jarduera...

## SARIAK

Aurten ere izanen ditugu sari bizkorrak, iaz bezala. Adibidez, bidaiak. Iaz, asteburuz gozatzeko hiru bidaia zozkatu genituen. Sari hauek gazteen artean arrakasta handia izan zuten. Eta zer esan zerriez? Ba, beti bezala, hamar izanen ditugu. Hau dugu gure zozketako ikurra. Zerrien zozketa deitzen diote askok eta askok.

Ea aurtengoan niri egokitzen zaidan, bada garaia. Bai bada garaia zortea izan dezagun, zuk edo nik. Aupa euskaltzaleok!

denetatik zertxobait. Denetatik eta denendako. Hala ere, ez da erraza aintzina ateratzea.

**Pulunpe, Esan Erran irratia, amezti.eus**, denon bildu leku, solas leku, denendako irekia; izan ezker, izan eskuin, izan sinestudun, izan sinesgabe, denendako irekia. Jostalekua beharko luke izan Pulunpe, baina, urtean behin,

jokaleku ere izaten da eta aurten ere ZOZKETA MUNDIALA gurekin dugu. Eta urtero bezala, sari ederrak prest ditugu zuendako.

Iaz 138 sari banatu genuen. Aurten ere saiatuko gara sari on eta anitz banatzen. Zure zain zaitugu. Egin apustu bildurrik gabe! Hemen beti dugu irabaztekoa elkarri lagunduz.

**Zozketa Mundiala**

**2019**

Sarien Zerrenda  
Lista de Premios

Asteburuko Bidaiak 2 Laguntzat **3**

**3** Fines de Semana para 2 Personas

**10** Txerri Gizen **10** Axuri Eder **10**

**10** Cerdos Gordos **10** Hermosos Corderos

**18** Bazkari edo Afari Bikoitz **18**

**18** Comidas o Cenas Dobles

eta...beste anitz sari!!  
y...un montón de regalos más

[www.amezti.eus](http://www.amezti.eus)





## Adindun talde berria, Basaburuan eta aktibo bizitzeko helburuarekin

Adineko pertsonen taldea antolatu da Basaburuan: BASADIN. Otsailean Apeztegi berriko gela lortu zutela jakin zutenetik hasi ziren biltzen, helburuak zehazteko eta ekintzak antolatzeko. Maiatzean inauguratu zuten gela, eta 40 pertsona bildu ziren egun hartan. Orain, ikasturte hasieran, izena adostu, eta egitasmo ugari jarri dute martxan.

**Benito Alberro Goñi-** Basadingo kideetako bat

“Basaburuan bizitzea eta aktibo bizitzea da helburua. Mugitzen hastea, gauzak kuadrillan egiten badituzu, errazago da”

### • NOIZ HASI ZINETEN?

Otsailean gutxi gorabehera. Berri ezin hobe eta etorri zitzaigun udaletxetik: gelatxo bat genuela. Orduan hasi zen mugimendua. Biltzen hasi ginen, gutxi batzuk hasieran, eta gero gehiago gehituz joan ginen. Normalean 5 edo 6 biltzen gara, batzuetan 8.

### • ZEIN DA ZUEN HELBURUA?

Helburu garbi-garbirik ez genuen momentu hartan, baina gogoia bai: gure bizitza aktiboa mantentzea zen gogoia. Hemen Basaburuan bizitzea, eta aktibo bizitzea. Horretarako, errazago da gauzak kuadrillan egiten badituzu mugitzen hastea. Bestela, nekatu egiten zara, eta edozein aitzakia aski da gelditzeko.

### • BASABURUAN, AIZAROTZEN YOGA EGITEN DUEN ADINEKO JENDEAK OSATUTAKO TALDE BAT BADAGO, AKTIBO EZ

### ZARETELA EZIN DA ESAN, BERAZ!

Bai, bildu ginenak, batzuk behintzat, hortik gatoz. Badaude egiten diren ekintza batzuk, Basaburuan edo inguruan, eta zer gehixeago egin genezakeen ikusteko biltzen hasi ginen. Orain dagoena ez ukitzea da asmo garbia; horrek funtzionatu egiten du, eta hori mantendu nahi dugu, eta laguntza behar badu, laguntza eskainiko dugu. Gauza berriak egiteko sortu zen talde hau, orain dagoenari trabarik egin gabe.



Yoga Aizarotzen. Basadinen bildu ziren batzuk hortik datoz.





## Basadinen egitasmoak:

### \* PODOLOGIA:


- Apeztegiberriko 1. solairuan, Basadineko gelan.
- Hilabeteko lehenengo asteartean.
- Gutxienez 5 lagun apuntatzen badira.
- Izena emateko: Ultzamako Gizarte Zerbitzuetara deitu.

### \* AKTIBATU PROGRAMA:

- Apeztegiberriko 1. solairuan, Basadineko gelan.
- Goizeko 11etan, astean behin.
- Urritik abendura arte, 36 euroren truke.
- Izena emateko: 948 50 30 25.
- Adineko jendeari eta gaixotasun kronikoa dutenei zuzendua.

### \* PENTSION DUINEN ALDEKO MOZIOA:

- Sakanako jubilatutako taldeak bultzatutakoa, Basadinek babestua.
- Pentsio minimo duina: 1.080 eurokoa. Horretarako: soldata minimoa 1.200 eurotan ezarri.
- Basaburuko Udalak Basadini aztertzeko eskatu.
- Benito Alberro Goñi, Basadin: "Horren alde egitea erabaki genuen. Matematika kontua da: guztiok pentsio duin bat eskuratzeko, soldatak igo behar baitira".







## Erorketak saihesteko tailerra:

Basaburuko Osasun Etxean, Jauntsaratsen burutzen ari dira, irailetik, erorketak saihesteko ikastaroa. 4 saio dira, eta 10 bizilagun bildu dira. Basadinen laguntzarekin antolatutako egitasmoa da, adinduek malgutasuna eta indarra lantzeko, batez ere. Abenduan bukatuko da, baina, beste talde bat sortuz gero, errepikatzeko aukera badagoela esan digu Orzuri Beldarrain medikuak.

### I. Malgutasuna:

Astean hiru egunez egin beharrekoak, astelehenean, asteazkenean, eta ostiralean, adibidez, 5 aldiz bakoitza:

#### 1. Burua mugitu:

Aurrera zuzen begiratu eta, ondoren, eskuinera. Ahal den eskuinerantz biratu behar dugu burua, motel-motel. Gero, gauza bera, baino ezkererantz.

#### 2. Bizkarra luzatu:

Hankak zabalik eta eskuak gerrikoan jarrita, gerrikoa aurrerantz mugituz, bizkarra luzatu.

#### 3. Bizkarra mugitu:

Eskuak gerrikoan jarrita eta gerrikoa mugitu gabe, eskuin aldera eta ezker aldera makurtu gerritik gora.

#### 4. Orkatila eta belauna mugitu:

Eserita, altxatu hanka, eta oinarekin gora eta bera egin.

#### 5. Belauna luzatu:

Eserita, besoak jarrita, hanka altxatu. Ahal den bezain beste altxatu, eta goian pixka bat mantendu ondoren, jaitsi berriro.

### II. Indarra:

Astean hiru egunez, malgutasun ariketen ondoren. Lehenengo bi asteetan 10 aldiz; hirugarren eta laugarren asteetan: 10 aldiz, gero 3 minutu deskantsatu, eta beste 10 aldiz. Bosgarren asteetatik aurrera: 30 aldiz, 3 minutuko bi geldidunerekin.

#### 6. 'Sentadillak':

Zutik, eskuak mahai baten gainean jarri. Gero, gora eta behera egin esertzera joango bazina bezala.

#### 7. 'Puntetak':

Zutik, eskuak mahai baten gainean jarri, eta oinen puntetan igo; gero, taloiak jaitsi berriro.

#### 8. Aulkitik altxatu:

Aulki batean ongi eseri, oinak zoruan ongi jarri, eta besoak 90 gradutan altxatu. Ondoren, eskuak inon jarri gabe aulkitik altxatu.

#### 9. Hanka makurtu:

Eskuak mahai batean jarrita eta bizkarra zuzen, hanka atzerantz makurtu belaunetatik.

#### 10. Hanka luzatu:

Eskuak mahai batean jarrita eta bizkarra zuzen, hanka albo batera mugitu.

### III. Bestelako aholkuak:

Astean bitan eskailerak igo; asteartean eta ostegunetan, adibidez. Gutxika kopurua igo, egunean 20-24 eskailera igotzea lortu arte.

Egunero ibili, 30 minutuz (15 minutuko bi alditan edo 10 minutuko 3 alditan izan daiteke). Arin ibili behar da, baina hitz egiteko aukera ematen duen erritmo batean. Oinak arrastatu gabe eta gorputza zuzen.

Gauean, beti, argiak piztu. Ohetik altxatzeko edo etxean mugitzeko. Orkatila ongi eusten duten zapatilak erabili.

### ERORKETAK SAIHESTEKO TAILERRA

Bi motatako ariketak ikasten dira tailerran: malgutasuna lantzen dutenak eta indarra lantzen dutenak. Gainera, eskailerak igotzea, egunero ibiltzea eta gauean kontuz ibiltzea gomendatzen da. Hemen ariketa taula, egin nahi duenarendako.





## Asteburuko eraso sexista salatzeko elkarretaratze jendetsua egin zuten Lizason

Lizasoko festetan jasan zuen eraso neskak, larunbat gauean. Lizasoko Kontzejuak eta herritarrek gogor salatu zuten gertatutakoa, eta elkarretaratze jendetsua egin zuten igandean paellada aurretik.

"Kontzejuko Juntak, Lizasoko herritar guztien ordezkari bezala, irmoki kondenatzen du gertatutakoa eta bere elkartasun eta babes osoa azaldu nahi dio eraso jasan duenari", zioen Kontzejuak

zabaldutako oharrean. Eraso sexistarik gabeko eta parekidetasunean, errespetuan eta askatasunean oinarritutako festen alde lanean jarraituko dutela adierazi zuten.

Lizasoko Kontzejuak Ultzamako Udalarekin elkarlanean jarri du martxan eraso sexisten aurkako protokoloa. Foruzaingoa salaketa jarri zuen erasotuak eta ikerketa abian da.



▲ kontzentrazioa



## Zurezko Tallak

— ESKUZ EGINDAKOAK —

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloreak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Esekilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

— MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU] —  
618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@ymail.com



## Hainbat obra, eskualdean

Herria zeharkatzen duen errepideko oinezkoendako espaloia berritzen ari dira Auzan. Obrak urriaren hasieran hasi eta azaroaren 31 bitartean, gutxi gorabehera, iraungo dute. Ainara Mutuberriak, arkitektoak, azaldu digunez, aurretik zegoen hormigoia ordez adokina edo harri-galtzada jartzen ari dira, izotzarengatik eta erabilerarengatik erraz higatzen baitzen. Gainera, faroletako argindarraren kableak beherago jaisten ari dira.

Obrak direla-eta, bi erraietako bat itxita izan da Auza zeharkatzen duen errepidean, eta semaforo bitartez kontrolatu dute trafikoak.

Bestalde, Erripan, plaza txiki bat egin dute, zementu zati bat jarritz.

Bukatzeko, Basaburuan, Ohianzabal eskolako hesiak aldatu dituzte, zaharrak kendu eta berriak jarri

dituzte. Gainera, Eurovelo bizikleta bidea aurrera doa, lhabendik Jauntsaratsa doan bidea ia bukatu dute, eta inguratuko duen hesia jartzen ari dira. Gartzarongo lanak ere aurrera doazela ikusten ahal da errepidetik



Jauntsaratsen egiten ari diren Euroveloko obrak ▲



CAMPING - KANPINA

# IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

**Etxean eginiko eguneroko menua  
Hamaiketakoak - Parking zabala**

Pizzak, Hanburgesak.... Oilaskoen eta  
paellen eskaerak egiteko aukera

**EGUNERO IREKITA**



eta.... Ostegunero  
8ak aldera Pintxo Pote

*Denetarik eta prezio hoberenean*



**HIRI BATEKO SUPERMERKATU TXIKI  
BAT LANDA INGURUNE BATEAN**

Fruta eta Barazkiak - Haragi freskoa  
Produktu ekologikoak eta bertakoak

**EGUNERO IREKITA  
9,00etatik 20,00etara**



## Idazkari berria, Anueko Udalean

Abuztuaren 19an hasi zen idazkari lanetan Sara Mendiburu. Erratzukoa da bera, eta Bertiz Aranan aritu da urte askoz. "Gutxika ohitura hartuz, bai, gustora nabil hemen. Bertizen igualtsua da, mantsoa", esan digu.

Aurretik Esther Pérez ibili da urte askotan Olaguen dagoen Anueko udaletxean idazkari. Abuztuaren 15ean jubilatuta zen.



Olagüe, Anue ▲

## Aizarozko Ostatua, hutsik

Urriaren 31a arte zabalik zen hura kudeatzeko proposamenak egiteko epea. Ez da agertu momentuz, ordea, Aizarozko Ostatua kudeatu nahi duen inor, eta kezkatua da Udala. Azken hiru urteetan Ana Irigoyenek gidatu du ostatua, eta pena handia eman bazion ere uztea erabaki zuen irailean, beste proiektu bat martxan jartzekotan zela eta.

Bestalde, bi etxebizitza jarri zituen errentan Basaburuko udalak, eta, esan digunez, Jauntsarasek bizilagun berriak ditu, honezkerok. Lehenengo etxebizitza, botika gainean kokatuta dagoena, 100m<sup>2</sup>-koa da, eta bigarrena berriz, udaletxearen gaineko solairuan

dagoena, 52m<sup>2</sup> ingurukoa. Urtebeteko epea izanen du alkilerak hasiera batean, baina guztia ondo joan eta bi aldeak ados egonez gero automatikoki luzatuko da.



▲ Kudeatzeko eskaerarik ez du jaso Aizarozko ostatuak urriaren 31a bitarte

## Batukada ikastaro jendetsua, Basaburuan

Urriaren 19an, larunbatarekin hasi zen Batukada ikastaroa Basaburuan, eta 20 lagun inguru bildu ziren eta 4 saiotan batukada oinarriak ikasteko aukera egonen da: urriaren 19ko eta 26ko lehenengo ondoren, azaroaren 9an eta 23an ere izanen dira. Guztiak larunbatarekin, goizeko 11:30etan.



▲ Batukada taldea

Lekunberriko Igor de Castro da irakaslea:

Txikitan akordeioa jotzen zuen. Gero Lekunberrin, Gaztetxean, talde bat sortu eta bateriarekin hasi zen; Iruñean Joaquín Lopezekin ikasi zuen bateria. Korumbarekin, oreretan sortutako metal taldearekin, 14 urtez daramatza. Eta Perkusio klasikoa ikasi du kontserbatorioan. Hernanin eta hemen perkusio irakaslea da.

Pasaderetako egunean probatzeko aukera izan zen, bertan gazte pila bildu ziren. Eta errepikatze gogoak bazeudela baieztatu daiteke, 20 pertsona bildu baitira.

Probatzen ausartzen ez bazarete, baina ikusteko gogoak baldin badituzue, Esan Erraneko Egun Ero irratsaioan de Castrok esan zigunez, publikoaren aurrean emanaldia eginen dute ikastaroa bukatu ondoren.



iritzia



**Angel Erro,**  
Berria egunkarian

## Epaiaren tranpa

2019ko urriaren 26an

Nafarroako Auzitegi Nagusiak eman duen azken epaiak tranpa egiten du. Euskara ezinen da baloratu erkidegoaren zona misto eta ez-euskaldunean, zeinetan, paradoxikoki, Nafarroako euskaldunen gehienak bizi, hazi, elebkarrei euskara inposatu eta hiltzen diren. Baloratu ezin den hizkuntza bakar bihurtuko da euskara (orain nik jarriko nuke beste hizkuntzak baloratzearen kontrako kereila, sententzia honen argudioak kopiatuta hitzez hitz, ea ausartzen diren ingelesa, frantsesa edo alemana jakiteak oposizio-lehiaketetan eman ohi dituen puntuak ere debeketzen edo, subsidiarioki, burutu duten zentzugabekeriaz jabetzen diren).

Hizkuntza, dio epaiak, herritar bakoitzaren eskubidea da, ez Administrazioarena. Baina ematen du herritar bakoitzak duen eskubide hori ez dela linguistikoa, funtzionarioa izateko bidean trabarik ez izatekoa (eta euskara ez ikustekoa) baizik. Hala erakusten dute euskara eskakizun txikiak ere lehen mailako herritarrak (%7, gehitzen dute oker eta maltzurki, euskaldunak alegia) eta bigarren mailakoak ezartzen dituela zabaltzen dutenek. Herritar bakoitzaren eskubidea linguistikoa balitz, Administrazioak bermatu beharko luke. Euskara ez da pribilegio bat. Beste hizkuntza bat da.

## IX. Onddoaren Eguna Ultzaman

Azaroaren 2an eta 3an Onddoaren Egunaren bederatzigarren edizioa ospatu zuten Ultzaman. Larunbatean bisita gidatuak antolatu zituzten gure basoetako onddo eta perretxikoak hobeto ezagutzeko, eta eguerdi partean miko-bermouta izan zuten. Igandean, berriz, goizean goiz hasi zen Larraintzarko pilotalekuan onddoaren festa: 8:30etatik aurrera biltzeko baimenak banatu zituzten eta mikologia aholkularitza eta erakusketa martxan izan zuten. Azoka jarri zuten ondoren: zizekin egindako eta horiekin lotutako produktuak zeuden salgai.

Haurrek ere izan zuten gozatzeko aukera Onddoaren Egunean. Ludoteka egon zen goizean zehar, eta eguerdian Mikel Lasarte aritu zen motozerrarekin eskulturak egiten. Azken urteetan ezagun egin den zozketarekin eman zioten amaiera egunari. Izan ere, ostiraletik aurrera Ultzamako bederlatzi ostatu eta jatetxetan pintxo-pote berezia egin zuten ziza eta onddoak erabiliz, eta hiru mikopintxo dastatzen zituztenek zozketan parte hartzeko aukera izan zuten.

Bestalde, Parke Mikologikoa martxan da honezkero eta atera du aurtengo basoaren egoeraren inguruko lehen txostena. Hilabete nahiko lehorrak izan direla eta kostatzen ari zaie onddo eta zizei ateratzea, baina pixkanaka hasi omen dira ikusten uzten: gibelurdinak, ziza horiak, hildakoen tronpetak, galanpernak eta beste topatu dituzte, esaterako. Ea hurrengo hilabeteetan gehiago biltzerik badagoen!



▲ IX. Onddoaren Eguneko kartela



## Hasi berri da Pilota Goxuko Txapelketa Gartzaronen

Urriaren 25ean hasi zen, eta abenduaren 28ra arte iraungo du, orduan izango baitira finalak hiru mailetan. Aurten 34 bikotek eman dute izena: 10 lehen mailan, 16 bigarren mailan eta 8 hirugarren mailan. Aurreko edizioan baino 6 bikote gehiago dira, Gartzarongo Pilota Txapelketan bezala, handituz doa, beraz, Pilota Goxuko Txapelketa ere bai.

Alde negatiboa, ordea, nesken kategorian ikusi dugu. Aurrekoan gutxi baziren ere, hainbat bikotek izena eman zuten, baina aurten ez da neskarik apuntatu.

Gartzarongo Pilota Goxuko Txapelketaren partidak Gartzarongo eta Latasako frontoian jokatu dira. Finalak, abenduaren 28an, Gartzaronen burutuko dira.

Bestalde, Gartzarongo XXXV. Pilota Txapelketa amaitzean da. Azaroaren 1ean, 2an eta 3an final laurdenak jokatu ondoren, 9an

eta 10ean final erdiak izanen dira, eta 16an finalak. Hasi zenetik, uztailaren 20tik, 200 partida baino gehiago jokatu dira; eta izen ematean errekorra izan

dute aurten: 263 bikotek eman dute izena, inoiz baino gehiago. Umeetan 56 bikote, haurretan 54, gaztetxoetan 44, nesketan 7, gazteetan 34 eta helduetan 68.



▲ Ezkerretik, eskuinera Olatz Ruiz de Larramendi, Leire Garai pilota jotzera doa, Maddi Unanue eta Irati Igoa. Gartzarongo XXXV. Pilota Txapelketan

De Rerum Natura

@zaldierox







## Kalabaza erraldoi bat banatu zuten Etxalekun

Jaione Azpiroz etxalekuko bizilagunak kontatu zigun Egun Ero irratsaioan nola banatu zuten kalabaza. Ez da horrelako kalabaza erraldoia banatzen duten lehenengo aldia, duela pare bat urte ere lortu zuten horrelako bat baratzean, eta hura ere bizilagunen artean banatu zuten. Azpirozen arabera, bere senarra da aditua, berak ereindu eta Azpirozek banatu, "ez du sekreturik, lur zabala dute gure kalabazak, badakizue nola zabaltzen diren, behar denean ureztatu eta gainontzekoa naturak egin du. Mota ezberdinetakoak ditugu eta batzuk horrela handitzen dira". Duela hiruzpalau urte jarri zuen senarrak baratza

martxan, eta autodidakta moduan joan da ikasten, jendeari galdezka eta interneten bideoak ikusten.

Urriaren hasieran banatutako Kalabazak 30 kilo inguru pisatuko zuen, aizkorarekin zatitu eta herriko plazan banatu zuten bizilagunen artean. Jaione Azpiroz: "Aizkorarekin zatitu genuen eta Idoiak eta Rosariok lagundu ziguten banatzen. Karretilan puxketak jarri, herriko whatsappean idatzi genuen plazan banatuko genuela, eta horrela banatu genuen. 20en bat puxketa edo banatuko genituen". Ohitura bihurtu dutela uste du, honez gero kalabaza jasotzen duten fijoak badituztela.

**\* Oharra: Euskara errezeko atal honetarako baratza hiztegia Larraun- Imotz- Basaburuko IKAk egin du Pulunperako**

### Hiztegia

**Calabaza:** kalabaza, kuia

**Lentejas:** dilistak

**Garbanzos:** txitxirioak

**Zanahoria:** azenarioa

**Berza:** aza

**Alcachofa:** orburua

**Espárrago:** zainzuria

**Acelga:** zerba

**Lechuga:** uraza

**Espinaca:** ziazerba

**Escarola:** osterzuria

**Nabo:** arbia



Ohiko neurria duen kalabazarekin konparatu zuten Etxalekuko txikiek

## Esan Erran irratiko tote poltsak salgai

Irailaren 16an eman genion hasiera Esan Erran irratiko Egun Ero irratsaioaren denboraldi berriari, pozez eta ilusio handiz. Aurreko Pulunpe aldizkarian azaldu genizkizuen, nobedade ugari ekarri ditugu gure uhinetara denboraldi berriarekin batera: kolaboratzaile eta berriemate bereziak, atal berriak... Aldaketak eta berrikuntzak ez dira uhinetara soilik iritsi, dena den: Esan Erran irratia beti zuen ondoan eraman dezazuen, tote poltsak atera ditugu oraingoan! Argazkian ikus dezakezuen bezala, irrati vintage eta polita serigrafiatuta duten ohialezko poltsak dira salgai jarri

ditugunak. Erosketak egitera joateko, euskara klaseetako koaderno eta karpetak gordetzeko nahiz asteburuko parrandetan erabiltzeko oso aproposak. 5 eurotan daude salgai poltsak Jauntsarasko Apeztegierrin, Aroztegiko Izarpe Kanpinean eta Larraintzarko Bentan. Zeren zain zaude, eskuratu zurea!

Piztu irratia eta jantzi Esan Erran!

**\* Oharra: "eta"-ren erabilera anitzak azaltzeko adibideak Larraun- Imotz- Basaburuko IKAK egin du Pulunperako.**

### "Eta"-ren erabilera anitzak

ETA juntagailuaren helburua maila bereko hainbat osagai lotzea da, eta beti osorik idatzi behar da ("ta" eta "da" ahozko euskaran erabil daitezke). Baina, ideiak lotzeaz gain, eta-k baditu beste zenbait erabilera:

### Kausazko esaldiak sortzeko:

"Ohera noa, nekatuta nago eta".

### Harridura adierazteko:

"Ezetz asmatu nor ikusi dudan? Nor eta Amaia!"

**Arrazoitzeko:** "Nik ez dut apurtu. Ukitu ere ez dut egin eta!".

**Indarra emateko:** "Beti, bezala nabil, lan eta lan".



▲ Apeztegierrin, Larraintzarko Bentan eta Atezko Izarpe Kanpinean daude poltsak salgai

## Kontzejuen hauteskundeak azaroaren 17an errepikatuko dira

Maiatzaren 26an tokiko administrazioen ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak izan genituen Nafarroan eta gure eskualdean: Nafarroako Parlamentuko eta Udaletako hauteskundeak ez ezik, Kontzejuetako ordezkariak aukeratzekoak ere izan ziren. Kontzeju askotan ez zen hautagaitzarik aurkeztu, ordea, eta horregatik, toki horietan azaroaren 17an errepikatuko dira hauteskundeak.

50 biztanle baino gutxiago dituzten herrietan Kontzeju irekiko lehendakaria aukeratu dute bozka bidez, eta 50 biztanle baino gehiago dituztenetan, berriz, Batzarreko lehendakaria eta bokalak. Urriaren 9tik 14ra bitartean egon zen hautagaitzak aurkezteko epea zabalik, eta gure eskualdean hauteskundeetara deituta zeuden 19 kontzejuetatik

zortzitan soilik aurkeztu dira hautagaitzak.

Bigarren aldiz hautagaitzarik aurkeztu ez den kontzejuetan, bi bide jarraituko dira: 50 biztanle baino gutxiago dituztenetan herriko asanbladan erabakiko da nor izango den ordezkaria, eta 50 biztanle baino gehiagokoetan, berriz, Nafarroako Gobernuak gestora bat jarriko du Kontzejuak kudeatzeko.

### Ze eskumen dituzte kontzejuak?

Interes komunekoa kontuak konpontzeko herri txikietako bizilagunen asanbladak izendatzeko erabili izan da kontzeju terminoa. Erdi Arotik datorren sistema modua da Kontzejuena, Nafarroan zehar oso hedatua dagoena. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioan biltzen dira lurraldeko Kontzeju guztiak.

Baina, zeintzuk dira kontzejuen eskumenak? Herrietako ondasunak mantentzea, erabilera eta ustiapena arautzea, herriko bideak ikuskatu eta mantentzea, hirigintzari lotutako baimenak ematea, bideen garbiketa egitea, argiteria publikoa kudeatzea, hilerrien mantentze-lanak, kontzejuetako artxiboak kudeatzea edota festak antolatzea dira, besteak beste, kontzejuen eginbeharrak. Ez da lan makala!


Aipatzekoa da bi legegalditan jarraian Kontzeju batean ez bada inongo hautagaitzarik aurkezten, administrazio hori desagertu egin daitekeela. Urteek aurrera egin ahala, egia da zenbait kontzeju desagertzen joan direla Nafarroan eta geroz eta gutxiago gelditzen direla: 1981ean Nafarroan 475 kontzeju bazeuden, 2018an 346 zeuden. Gurean, esanguratsua da Basaburuan Kontzeju izateko tramitazioa hasi berri duela herri batek: Aizarotzek.



Azaroaren 17an errepikatuko dira kontzejuetako hauteskundeak ▲



## Ze Kontzejutako herritarrek izanen dute azaroaren 17an bozkatzeko aukera?

ANUE	ULTZAMA	
<p><b>ARITZUKO KONTZEJUA</b> (Kontzeju irekiko lehendakaria)</p> <p><b>ARITZUKO TALDEA</b> 1. Juantxo Erbiti Mitxeltoarena Etsaingo Kontzejua (Kontzeju irekiko lehendakaria)</p>	<p><b>ALKOZKO KONTZEJUA</b> (Batzarreko lehendakaria eta lau bokal)</p>	<p><b>Alkotztarrak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Iosu Goñi Echeverria</li> <li>2. Miren Latasa Barberena</li> <li>3. Antonio José Iraizoz Apezteguia</li> <li>4. José María Itoiz Goñi</li> <li>5. Cristina Balda Tornaria</li> </ol>
	<p><b>AUZAKO KONTZEJUA</b> (Batzarreko lehendakaria eta lau bokal)</p>	<p><b>Auzakoak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. José Ramón Berasain Berasain</li> <li>2. Jesús María Goienaga Tornaria</li> <li>3. Macario Ciganda Tornaria</li> <li>4. Tomás Javier Goñi Baleztena</li> <li>5. José Ignacio Goñi Aldaz</li> </ol>
	<p><b>ELTZABURUKO KONTZEJUA</b> (Batzarreko lehendakaria eta lau bokal)</p>	<p><b>Aiziarbil Elkargoa</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Laura Herranz Oiz</li> <li>2. Lourdes Aranguren Barberia</li> <li>3. Ana Isabel Mindegia Ilarregi</li> <li>4. Roberto Soto Valles</li> <li>5. Antonio Maria Echeverria Echenique</li> </ol>
	<p><b>GORRONTZ-OLANOKO KONTZEJUA</b> (Kontzeju irekiko lehendakaria)</p>	<p><b>Independiente de Gorrontz</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Pedro Fermin Zunzarren Baigorri</li> </ol>
	<p><b>IRAIZOZKO KONTZEJUA</b> (Batzarreko lehendakaria eta lau bokal)</p>	<p><b>Iraizotztarrak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Miguel Garcia Arza</li> <li>2. Iker Isasi Aleman</li> <li>3. Leire Echeverria San Pedro</li> <li>4. Mirian Sapuppo Galain</li> <li>5. Unai Martinez Icaya</li> </ol>
	<p><b>LIZASOKO KONTZEJUA</b> (Batzarreko lehendakaria eta lau bokal)</p>	<p><b>Lizasokoak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Iban Ancizu Oscoz</li> <li>2. Julen Ancizu Marckert</li> <li>3. Iñaki Ariztegi Barberena</li> </ol>

▲ Kontzeju izateko pausoak ematen ari da Aizarotz Basaburuan













## Eta hala ez bazan, sar dadila kalabazan...

“Bazen behin Orgi izeneko baso eder bat, bere haritz artera mundu osoko istorio kontalariak gonbidatu eta alde guztietako haurrak ekarri zituena...”. Horrelaxe has liteke Orgiko I. ipuin-kontalarien jaialdiaren istorioa. Irailaren 14tik azaroaren 3ra bitartean, ostiral eta larunbatero txoko ezberdinetatik etorritako ipuin-kontalarien saioak izan dituzte bertan. Antolakuntzan aritu den Beatriz Otxotorena elkarrizketatu dugu.

### • LEHEN ALDIZ ANTOLATU DUZUE IPUIN-KONTALARIEN JAIALDIA. NONDIK NORA BURURATU ZITZAIZUEN EKIMEN HAU ABIAN JARTZEA?

Oskar senarra eta biok Orgiko basoa kudeatzen duen Ultzama Fundazioan gabiltza, eta gure lau urteko alabari ipuinak eta kontu-kontariak zenbat gustatzen zitzaizkion ikusita, bururatu zitzaigun: zergatik ez horrelako zerbait antolatu Orgiko basoan? Fundazioko beste kideei ideiare berri eman eta ongi iruditu zitzaien. Nafarroako Gobernuaren kultura arloko diru-laguntza bat eskatu eta baiezko erantzuna jaso genuenean erabaki genuen ideiarekin aurrera jarraitzea. Espainiako estatu guztian ez dugu horrelako beste jardunaldirik aurkitu, halako zer edo zer antolatzen den lehen aldia izan da Orgikoa, beraz.

### • ZENBAT IPUIN-KONTALARI ARITUKO DIRA HILABETEOTAN?

18 ipuin-kontalari pasatuko dira Orgitik, erdiak euskarazkoak eta beste erdiak gaztelerazkoak.

Horietatik bat niniendako izan da, haurtzaindegian dauden ume txikiendako, eta beste gehienak lau urtetik gorakoendako. Ipuin-kontalari gehienak nafarrak dira, badago kultura hemen, baina egia da oso gutxi direla profesionalak: beren lanetatik aparte duten afizioa da hau.

### • ETA GAI ALDETIK, ZERI BURUZKO IPUINAK KONTATU DITUZTE?

Denetik egon da, librea izan da gai aldetik. Aurreko asteburuan, adibidez, Gasteizko ipuin kontalariaren istorioa zen nola neskato bat ikastolako mutil batez maitemintzen zen, eta nola jendeak esaten zion: “Betaurrekoak kendu beharko dituzu haren gustukoa izateko, eta mototsak ere bai, eta irria ere bai...”. Eta neskatoa orduan konturatu zen mutikoaren gustukoa izatea lortuko zuela agian, baina ez zela benetan



Beatriz Otxotorena Villanueva ▲





bera izanen. Orduan erabakitzen zuen garrantzitsuagoa zela bera den bezalakoa izatea bestearen gustukoa izatea baino. Mezu indartsuak dituzte ipuinek bere atzean, gehienetan.

#### • ARRAKASTA HANDIA IZATEN ARI DA EKIMENA, EZTA?

Lehenengo asteburuan jende gutxiago etorri zen, baina hortik aurrera, pentsatzen dugu sare sozialetatik eta ahoz aho zabaldu delako, jendetza hurbildu da saioetara. Jende gehien kontatu dugun saioan 413 pertsona zeuden, pentsa! Sekulako arrakasta izan du, bai. Parkinga beteta askotan egon da, eta 200 autorentako tokia dago... Azken asteburu honetan ere, ostiral eta larunbata kontuan izanda 1.200

pertsona inguru hurbildu dira. Ez genuen horrelakorik espero, egia esan.

#### • ZERGATIK USTE DUZUE IZAN DUELA HORRENBESTEKO ARRAKASTA?

Nik uste haurrek eskoletan ere esan dutela hemen egon zirela eta zein gustura... eta horrela joan direla elkar kutsatzen. Gero, guk palomitak ere jartzen ditugu, kafea, freskagarriak... zineman bezala da! Eta plan ona da goizetik etortzea bokatekin edo basoan barbakoa egitea, ipuin-kontalaria entzun eta ondoren bueltatxo bat ematea Orgitik... Aktoreak ere harrিতuta gelditu dira arrakastarekin, ez omen zitzaien sekula gertatu hainbeste jende joatea saioetara!

“

**Aktoreak ere harrিতuta gelditu dira arrakastarekin, ez omen zitzaien sekula gertatu hainbeste jende joatea saioetara!**

”

#### • HELDUEK ERE GOZATU DUTE?

Bai, ez dira helduei zuzendutako istorioak, baina haiendako ere balio dute: haiek ere irri egiten dute, aktoreek boluntarioak eskatzen dituztenean ateratzen dira... ez dira aspertu, hori ziur! Umeen aitzakiarekin helduek ere asko gozatzen dute, nik uste.



▲ Arrakasta handia izaten ari dira ipuin kontaketa



# Joxe Joakin Gartzaron Ilarre

Mendi gizona, nekazaria (abeltzaina), jubilatua, bere txerri, oillo, untxi, oraindik ere hor dirauena. Lanerako gogotsu eta jolaserako (solaserako) ere bai. Zinez (siñes) mintzatzen dena, bizitasun eta indar handiz, irakasle izan balitz ikasleak adi-adi edukiko zituzkeena, apez sermoilari bikaina izanen zena...baina nekazaria izan dena.

## • ESKOLAN LUZE IBILLI YITZEN?

Sobra gutxi. Negun lau'bet illate, geien-geiena bost bat illate.

## • HAMALAU URTIAK ARTIO?

Ezta pentsatu ere! Askos lenao utzi nin. Ni senidetan zarrena nioken eta, jakiñe, ni gutxina ibillie.

## • ESKOLAK AKATU ETA HAMASEI URTIAK ARTIO NON EONDU YITZEN?

Hemen; Loitzutik ure kartzé'ori re, zanj'hoi, -1864 metro zittin- ta hoi gue attek-eta hartu ziten, Joxe Imaz ta, Joxe sakristauena ta. Ta ordun erremintaik haundina yun altzurre, ta dena in giñin, altzurre ta palas; ekarri giñin herriraño. Kosta zakiuken illate pari'at gora bera. Eta gio herrin itxe batian eta bestian, hemen eun paria't eta bestian lau. Hola!

## • ETA HAMASEI URTETAN ELTSORA, EXKURDIN ITXAA!

Bai, martxoan bien joa'nioken. Eta Lorentzo, nausia hil berri-berrittoa, hamar bat eun o hola zittin hillik. Honek hamar seme-alaba zittin, sei gizaki ta lau emakume. Tratante haundie yun. Ta kontrabandoan, beis, semiak ibiltzen yittun.

## • BERA EZ YUN IBILLI IZAN?

Bera ez, bera yun tratantia.

## • LORENTZO HIL ONDOREN NOR GELDITU YUN NAUSI?

Ziten Florentino deitzen zena. Hori ziten itxako, gaztenan aurrekoa yun hore. Ta bazoayekin Kaparrosen kamion bat kargatuik, mandos, Erriberra aldia, etzakit noa iamaten zittun, ta Kaparrosen, han pasta'uk

zubi bat herrire allaeran edo herrin pastian edo, ta hor zubitik joan yun errekia ta hantxe akatu yun.

## • GOAÑIK EZKONTZEKO?

Andregaie bazin, biño ezkontzeko. Hoiek in ziten kanbio, Florentinok zin Urizen alaba -Uriz aziendaketan ibiltzen yun kamionakin- eta Uritzen semiak zin Exkurdin alaba, Maria Luisa.

## • TA FLORENTINO HILTZIAN?

Gaztena itxako. Javier zin izena. Eta nik biño urtia't geigo zin.

## ZENBAT DENBOA IN YUN EXKURDIN?

Urtia't in nin.

## • ETA BETIKO IZENGOITTIE HORTIK HELDU ZAIK.

Bai, hemen ta nonai, hala esaten zeetek, "Exkurdi".

## • TA ELTSOTIK FRANTZIRE, OIANIA. ZIATIK JOAN YITZEN?

Iraazten yun diru pixkoa't hemen biño geixau, ta horta!

## • NOK IAMAN ZIN? NON BITTARTEZ?

Hemen tor yun, Maulen ondokoa, Bioskoa eo (Bildoze) Iriart zin apellidoa. Azaldu yun hemen eun'betes, mutil bille zaillela ta aittu giñozen jolasian ta tratao in giñin, honbeste jornal illateko, ta joan giñozen bi anaiek, Joxe Antonio ta biek Frantzire, ta pastu giñizin soldadu joan artioño ko bi urtiak horrek in.

## **Eta soldadu joan zen, hamazpi hilabete pasa, eta berriz Frantziara.**

Ta soldadutaik torri, belarrak itxeoak ta in ta, gio joa'nioken Mikeondako. Beutarra, Mikeo, horrendako; Valcarlosa (Luzaide) joan giñozen, Oskoztiken bost laun, ta han aittu giñozen eguerrik aldiaño ta eguerdi bezpian torri eta hurrengo urtian Frantzire.

## • ETA LANIA, NONDAKO?

Lombardi-ndako, Arrudikoa (Pirineotako herria) Eta Pirineotan



Joxe Joakin eta Carmen, senar-emazteak, Maritonebeitiko goitiko atarian. ▲





# egi, Exkurdi



## Hemendik yamaten zittin dozen'at pion, ta aitzen yun aldi'atia Saint Gaudens papelaraako



aittu giñozken lanian. Ia-ia beti abetoan.

• HIKFAMABADUKMOTOSIERRISTE BEZALA.

Eeeee! Ni ez niok honbesteko motosierriste! Ni Frantzin ez niok aittu motosierrakin. Hemen aittu nauk geiena, menditik geldittu eskios. Nik Frantzin ez nin motosierraik ibiltzen.

• ZEEKIN IBILTZEN YITZEN BA?

Makina batekin. **Motorino** deitzen zioteken, hoiek atra berriek yittun, zure tiatzekoak. Jartzen yittun arbol batian, ta ziten reduktora, ta reduktora gañen jartzen yun motorra, indarra maten ziona reduktorari ta lotu zurek ta kartzen zittin berroitamar, eun metroan igual, engantxatuik zion lekutik;

### ARDI ESNEA? URA BAINO GEHIAGO

Kontu hau kanpora atera dugu, merezi du eta. Exkurdikoazienda larriez mintzatu gara. Geroazienda xeheez, ardiez. Horrela kontatu digu Joxe Joakinek ardi kontu hau:

Bazittiten hoitameka ardi, deiztekoak. Nik e'nin puta ideaik. Audo puta ikasi nin! Dedius!

Bat ziten ezkondu, Luis Mari, Iruñen, eta horrek zin Fonda Yaben, ta horrek iamaten zittin gaztak. Krixton esnia kentzen nioteken; eunian hogeitameka ardi kentzen nioteken 30 litro. Eta kaikue, deizteko, zurezkoa, mutur luzia, sartzen yun besotaño, -esne tantik'e ez galtzeko-

zurek, tiren. Azpitik gora. Hortako yittun haiek, azpitik gora kartzeko. Gio, beste lan tonteriotan'e bai. Lonbardikin lanian urti'atez.

Hurrengo urtian joan giñozken baztandar batendako, Arrayozkoa yun, Antonio Urdaniz. Deitzen zioteken Mocottó, fama haundie zin. Oso indartsue yun. Hemendik yamaten zittin dozen'at pion, ta aitzen yun aldi'atia Saint Gaudens papelaraako. Ta horrendako aittu giñeken urti'at akatu gabe. Setiembrían ondarr'aldia esan ziuken: zuk e'tzate onak hola jornalian aitzeko, bestendako lanian; hobi'auzte askos'e aitzen bazate aldi'atia. In'tzazte proba, oktubria illate earra'uk proba itteko, beroik gabe, lan geio itta'uk ta.

Ta in giñin proba ta atratzen giñin doble biño geigo aldi'atia lanian ta ordutik aurria hola joan giñozken; hurrengo urtian, lau anai, Saint Gaudens papelarandako geen konture.

• LAUEK BAKARRIK ZIÑETEN?

Ez, baginizin bi lagun, Alkozkoak, Florentzio Ariztegi ta Joxe Zenotz, denak sozio (Lehena **Oihaneko etxekoa eta bigarrrena Alejandro etxekoa**) Eta hola in giñizin hiru urte. Papelarandako lau urte, Mocottokin urti'at eta geen kontu hiru. Bueno

Ta itxekoandria kontenta'u!

Etortzen nioken honia (Oskotza, alegia), illatian bein o hola ta, iandetan, itxa buelta't itta ta, Meliton ta, Aotzeneko Martin ta, hola jolasian hasi arditaz ta,

**-Han ardik ta, bazkatu?**

**-Soroa ardik han; asian daitze!**

Ta hemengoak ibiltzen yittun mendin, illarraka yaten ta e'tziten esneik dius'e itten.

**-Ta kentzen'ttiotet hoitamar litro; hor naille.**

Eta Martinek:

**-Beizok, beizok, beizok!!! Honek ikas'dik gio audo gezurrek botzen!**

Hau ta hore, hasi yittun. Gezurre botzen?!!! Soroan, asian belarrían

▼ *Maritionebeiti, Gallegoaren etxea deitzen diote, etxe osoaren azpiko alde da. Gaineko aldekoa, Maritongoitti, jakina.*



Florenziok urti'at bakarrik in zin eta Joxek bi urte.

• TA BESTE NONBAIT AITTU ZIÑETEN?

Bai, Papelerakoa akatu ta Españin, piñoan, Arakilgo Villanuevan telefono postiak itten zittiten brean eosita. Ta hoiendako urti'at in giñin.

**Eta akabo!**

Ez, ez, hurrengo urtian, Juanito Mariezkurrenandako, eratsundarra, Frantzire. Harpatu duten nausik hobena yun hoi!

**Baina bai hurrenagokoa, Juan anaia Leitzako papeleran ari zen eta, honek, beste anai guziak eramana zitzen bertara, Cristobal ezik, fabrikan sartu nahi ez eta Iruñeko mataderoan sartu baitzen. Eta jakina, bera, etxean nekazari.**



**Txurdan**

ta pulpa ta zalkia, pentsue maten zioteken. Haiek e'tziten esnia bota biar? Ure biño geigo botzen ziten esnia.

Aotzeneko Martin ezkondu zenian, astia'tez aittu nioken horren ardik deitzen, be atekin bordan.

Hala esan zeken:

**-Joxe Joaquin, deitziko al ttuzu ardik?**

**-Bai, bai, deitziko'ttut nik ardik.**

Deixten nittin hogeitamar ardi; bost litro kentzen nittoteken.

Ta gio hemen hasi zittutelaik soroan:

**-Joxe Joaquin, arrazoiñe yun e!**

-Esan zeken Martinek.

Doble esne biño geigo emati'atek soroan; hoixe baietz!



## Kalabaza rabioliak idiazabal saltsarekin

Egun Ero Sukaldean atalaren bigarren saioan Aroztegiko (Atetz) Izarpe Kanpinean izan gara. Hango sukaldaria den Maitane Osakarrek italiatik datorren plater goxoa prestatzen erakutsi digu: rabioliak gazta saltsarekin. Animatu prestatzera, erraz-erraza da eta!"

### OSAGIAK

**Kalabaza**  
**Philadelphia gazta**  
**Esnegaina**

**Tipula karamelizatua**

**Dumplingak egiteko pasta:**  
**wonton pasta xafla laukiak**

**Idiazabal gazta**  
**Intxaurreak**

▼ *Izarpe Kanpineko Maitane Osakar sukaldariak erakutsi digu errezeta*



### • PAUSOAK:

1) Kalabaza labean erre, barruko haragia atera eta txiki-txiki egin.

2) Tipula karamelizatu: bizpahiru tipula juliana eran moztu, tira luzetan, eta kazola batean su baxuan jarri (olio txorrota batekin eta gatzarekin). Tipula kasik egina dagoenean, garden jartzen denean, hiruzpalau koilarakada azukre gehitu, su fuertean jarri eta etengabe nahasi tipula karamelizatuta gelditu arte.

3) Ontzi batean kalabaza txikitua, tipula karamelizatua eta philadelphia gazta nahasi, masa homogeneoa lortu arte.

4) Dumplingak egiteko wonton pasta xaflak zabaldu. Xaflaren erdian kalabaza, tipula eta gaztaren masa koilaratxo bat jarri, gehiegi bete gabe.

5) Pasta xaflaren ertz guztiak urez busti pintzel batekin eta ertzak elkarri itsatsi rabioliari hiruki forma emanaz (enpanadillak bezalatsu, baina tenedorearekin markatu gabe, soilik urarekin bazterrak bustiz). Hiru edo lau rabioli eginen ditugu.

6) Ura irakiten jarri lapiko batean eta rabioliak 3-4 minutuz egosi, pasta bigunduta gelditu arte.

7) Saltsa eginen dugu: lapiko txiki batean esnegaina berotu eta Idiazabal gazta gehitu norberaren gustura. Ongi nahasi gazta guztia urtu eta saltsa fina lortu arte.

8) Irakindako rabioliak platerera atera, Idiazabal saltsa gainetik jarri eta intxaurre txikituak gainetik bota

9) On egin!



▲ *Izarpe Kanpineko Maitane Osakar sukaldariak erakutsi digu errezeta*





# Hots eta soinuak,

“Kan, kan, kan... edo kanka, kanka, kanka... ari zen arotza” Soinu bat, hots bat. Baina bi hots horiek ez ditut hiztegiaren opatu. Beste hots batzuk berriz bai, esaterako, *miau* edo *kuku*.

Hitz berezi horiei onomatopeia deitzen zaie. Hizkuntza guzietan badira eta gurean zer esanik ez.

Zer behar ote da hitz bat hiztegiaren sartzeko? Eta onomatopeia bat? Onomatopeia batzuk hor daude, beste batzuk ez dira aski ezagunak edo ez dute merezi hiztegiaren sartzeko. Dakitenek jakinen dute, zein eta noiz sartu.

Azkeneko Pulunpen, Eltsoko **Perutxeneko** Martinen historiaz aritu ginen eta honek asmatzen zituen izengoitiez.



▲ Alkozko herria.

Horietako hiru gutxienez onomatopeiak dira:

**Atxulo-matxulo.** Zer esan nahi ote du atxulo izenak? Ez dut topatu hiztegiaren. Dantzaria dela zioten Eltson. Ezin sinetsia zait.

**Irrillo-mirrillo.** Zer esan nahi ote du *irrillo* hitzak? Hiztegiaren ez dator, eta espero ere ez genuen espero deus aurkitzea. Hitz joko bat dirudi, besterik gabe, irri hitzetik sortua. Hori bai, oso-oso pollitta.

**Zikiti-zakata.** Endreatzailea. Guk *zitiki-zataka* erabiltzen dugu, azken batean gauza bera: *lohietan zebilen bere katuska berriekin zitiki-zataka. Gozoa jarriko zen!*

Lohi eta lokatza kontuak utz eta segi dezagun aitzina.

Eltsoko prozesuan izengoitiak jartzeko erabili zituen Martinek onomatopeiak. Gure denboran ere ibili izan dira. Irurtzunen, esate baterako, bazen *Puzpuz* izengoitia zuen kisuskila. Beti erabili izan dugun *puz puz* ibiltzeari, Alkotzen **puzpuria** esaten diote. Beste egitekorik gabe, adiskide, ezagun edo auzoen atzetik ibiltzea, zozokerian, zer ikusiko, zer entzungo, ... hori omen **puzpuria**.

Batzuk arrunt politikak dira: hotsak politikak direlako, beste batzuk esanahiarengatik. Hona hemen bat: *Barbarbar-barbarbar!*.... Sakonean entzuten den jende-jolasa: “*Ondoko kuartoan, barbarbar-barbarbar, gau guzie jende jolasa*” Edo, primaderan, eguraldi gozoa, epela eta eguzkitsu-euritsuetan, belarra hazten ari denean, berdin-berdin erabiltzen ahal duguna: “*barbarbar-barbarbar ai duk*

*belarra haunditzen*” Belarra nola ari den handitzen –oso azkar ari baita handitzen- entzuten bagenu bezala. Eta absurdoa ere badena, baina oso polita.

Aspaldian nuen onomatopeiaz idazteko gogoia eta **Perutxenek** eman dit azken bulkada. *Zirt edo zart* egiteko tenorea, eta horrela hasi naiz.

Hasierak segida beharko du eta, hurrengo batean, -noiz?- idatziko dut gehiago eta ekarriko onomatopeia polit ederrak.

Gaur, ardo frexkoa, ardo frexkoa, eder eta leuna, zintzurretik behera *glo-glo-glo!* Edo *dzanga-dzanga* esan behar ote dugu? Biak ongi.



**Txurdan**

Izan ontsa

## Hiztegia

- **Lokatza**, lohi ugari dagoen tokia dela dio hiztegiak.
- Gurean, berriz, beste esanahi batekin ibiltzen da: lur gaina lohitu baina oraindik behea txuku dagoenean esaten zaio.
- Erabat lohitu gabea.

## Oharrak

1.-Pulunpen, lehen ere, lehenbiziko zenbakietan, 14.an eta, onomatopeiaz idatzi zuten. Nork idatzi zituen artikulu haiek? Angelek?

2.-“Orotariko” hiztegiaren atxulo eta haitzulo gauza bera direla dio, baina gure kasuan hala ote? Ez dirudi.

# Zorionak Zorionak !



Zorionak Argia eta Iraber !!



Zorionak Hegoi !!



Zorionak Hintza !!



Zorionak Javier Astin !!



Zorionak !!



Zoriondu zure laguna  
Pulunpen!

[pulunpe@gmail.com](mailto:pulunpe@gmail.com)



## Atezko Euskararen Eguna, azaroaren 9an

Euskara bultzatzeko helburuarekin iaz hasi ziren Atetzen Euskararen Eguna antolatzen. Aurtengo jai eguna antolatzen aritu da Irelarre elkarteak azken hilabeteetan, eta hasiera batean urriaren 26an zen egitekoa ospakizuna. Baina Altsasuko gazteen aldeko Iruñeko kontzentraziara hurbiltzeko deialdia zela-eta, antolatzaileek data atzeratzea erabaki zuten azkenean: azaroaren 9an egingen dute Atezko Euskararen Eguna, Aroztegin.

Euskararen Eguna antolatzen zuten lehen aldia iazkoa izan bazen ere, ekimen honen sustiraiak duela zenbait urtetik datoz. Izan ere, lehen Euskal Jaia egiten zuten Atetzen antzeko helburuarekin. Festa egun handia izaten zen hura: herrietako antzinako lanak nola egiten ziren erakusten zuten, bazkaria eta zuzeneko musika egoten zen... laz formatua aldatzea erabaki zuten, ordea, Irelarre elkarteak. "Egitarau xumeagoa izanen zuen ekimena

antolatzea erabaki zuten iaz elkarteak, baina kalitatezko gauzak ekartzen jarraitzen dute orain ere", azaltzen zuen Iban Baztan Atezko berriemaileak Esan Erran irratian.

### • EUSKAL JAITIK EUSKARAREN EGUNERA

Egitarau xumeagoa izanagatik ere, helburuak lehenengo bera izaten jarraitzen du: egun hori euskaraz bizitzea eta egunerokotasunean euskara erabiltzeko harra jendeari piztea. Eta zer antolatu duten aurtengoan? Bada, egun osoko egitaraua prestatu dute Aroztegin. Eguna ongi hasteko, Izaskun Mugika ipuin-kontalaria izanen dute 11:30ean, eta, ondoren, Arrotxapeako kantu taldearekin batera euskal kantak abesten ariko dira. Bazkaltzeko paella herrikoia egingen dute elkarteak. Eta arratsaldean zer? Bazkalondoa alaitzeko gurean ohikoa den ekimena antolatu dute: bertsolariak.

"Eneko Lazkoz etxarriarra eta Alazne Untxalo iturendarra arituko dira bazkalostean", kontatu digu Irelarreko Irantz Azpirozek.

lazko lehenengo Euskararen Eguna nahiko arrakastatsua izan zela azaldu zigun Baztanek, eta aurtengoak ere bide beretik jarraitzea espero dute. "Aroztegiko elkarteak egingen ditugu ekimen guztiak, eta iaz bezala, espero dugu inguruko herrietatik ere jendea hurbiltzea eta giro polita sortzea". Aitzakia polita izanen dugu azaroaren 9an Atetza hurbildu eta jai giroan euskararen aldeko gure aletxoak jartzeko.



▲ Bertsolariek alaituko dute bazkalostea aurtun ere



▲ Euskal Jaiaren jarraipena da iaz hasi zuten Euskararen Eguna



# Andoni Gaskue Mendibe,

## Poza ematen du horrelakoak irakurtzeak. Baina jaramon handirik ez egiten saiatzen naiz ez batzuei [kritika onei], ez besteei [kritika txarrei]

6 urte zituenetik jokatzen du pilotan Andoni Gaskue Mendibek, eta 20 urteko gazte honek pilotalekuan gozatzen jarraitzen du, profesioaletara pasatzeko presiorik gabe. Larraintzarko Etxeberrikoa uda honetako sorpresa izan dela diote zenbait egunkaritan, baina kontu handiz hartzen ditu horrelakoak. Aldi berean, aita abeltzain duenez, nekazaritza ingeniariitza ikasten hasi da unibertsitatean, nekazaritza eta abeltzaintza lanbide heziketa egin ondoren. Ongi uztartzen ditu biak, ikasketak eta pilota

### • ZEIN DA PILOTARI LOTUTAKO ZURE LEHENENGO OROITZAPENA?

Etxean, aitonaekin edo aitarekin jokatzen.

### • ZENBAT URTE ZENITUELA HASI ZINEN JOKATZEN?

6 urterekin, hemengo eskolan, Ultzamako pilota eskolan apuntatu nintzen, eta orain arte. Tartean urte batzuk Elizondon ere entrenatu nintzen, eta baita Donezteben ere. Gero Ultzamako pilota eskolara itzuli nintzen. Orain astean bi egunetan hemen frontoian entrenatzen naiz, eta beste bitan Iruñera joaten naiz prestatzaile fisikoarenera. Indarra eta horrelakoak lantzen ditut harekin.

### • ETA NOIZ DEBUTATU ZENUEN 2. MAILAN?

Oraindik afizionatuetan nabil, baina Aspek bi partida antolatu ditu hemen, bata 2018ko maiatzean eta aurtengo otsailean bestea, eta haietan jokatzeko proposatu zidaten. Parte hartu nuen, eta gustura ibili nintzen, pozik.

### • ETA UDA HONETAN INDARTSU IBILI ZARA, EZ AL DA HORRELA?

Uda nahiko ona izan da niretako, bai, Antiguoko eta Lezoko txapelketak irabazi baititut. Gero, Aizarnazabalen

txapelketa izan nintzen eta, beraz, bai, ongi joan da uda.

### • ETA NOLA BIZI DUZU?

Ez dakit nola deskribatu... pozik, noski!

### • URDURI JARTZEN ZARA HORRELAOETAN?

Beno... txikitan, bai, urduri jartzen nintzen finaletan. Baina adinarekin ikasi egiten duzu, urduritasun hura kontrolatzen..., eta orain nahiko lasai ibiltzen naiz. Beste kiroletan bezala, burua behar da jokatzeko, oso psikologikoa da. Futbolearen edo taldekako kiroletan kideen artean elkarri gehiago laguntzen zaio, baina pilota bakarkakoa edo gehienez binakakoa izaten da, eta zailagoa da zentzu horretan, bai.

### • ZER PARTIDA DITUZU ORAIN, UDA BUKATUTA?

Hainbat txapelketa jokatu behar ditut: Diario Vasco eta Memorial Soroa, Tolosan. Gero, Aretan ere bai. Orain Nafarroako txapelketa ere hasiko dugu...

### • ETA NOLA IKUSTEN DUZU ZEURE BURUA?

Zaila izaten da gehienetan, baina saiatuko gara gurea ematen, eta ea emaitzak onak izaten diren.

### • PENTSATZEN DUT IRAKURRIKO ZENITUZTELA PRENTSAN ZURI BURUZKO KRONIKAK, UDAKO SORPRESA IZAN ZARELA JARTZEN ZUEN BATEK BAINO GEHIAGOK...

Horrela esaten dute, bai, Diario Vasco egunkarian, batez ere. Poza ematen du horrelakoak irakurtzeak, baina batzuetan oso ongi jartzen zaituzte, eta, beste batzuetan, gaizki egiten duzunean, oso gaizki. Horregatik saiatzen naiz jaramon handirik ez egiten, ez batzuei, ez besteei. Hala ere, ongi hartzen dituzu kritika onak, noski.



Andoni Gaskue ▲





# Lurraren

## Elikagaiak biluztu

Saiatu al zarete plastikozko ur botilak zuen bizitzatik kentzen? Baietz espero dut, oraingoan beste erronka bat proposatu nahi baitizuet plastikoa murrizten jarraitzeko.

Plastikoaren gehiegizko erabilerearen ondorioen inguruko datuek itolarria eragiten digute, baina gu oraindik gai gara plastikoa murgilduta igeri egiten jarraitzeko. Hala ere, datuek erakusten digute urtero plastikoa itota 100.000 bat itsas animalia hiltzen direla: arrainak, baleak, izurdeak, dortokak, itsasoko hegaztiak, pinguinoak,... besteak beste. Animalia hauek hiltzen dituztenak, askotan plastikozko poltsak dira, gure artean bizitza motza badute ere, sarritan erabilera bakarra,

desagertzeko 150 eta 1.000 urte bitarte behar dituztenak.

Honez gero, pentsatzen dut gehiengo erosketak egitera oihalezko poltsa, saski, kutxa, edota plastikozko poltsa ez den beste zer edo zerekin joan zaretela. Nonbait begiratzen hasi behar eta erosketak egiteko erabiltzen duzun



Taperra ▲

zorroa arakatzea proposatzen dizuet, pentsatzen baitut hor barrenean, kanpotik ikusi ez arren, plastikozko poltsa koadrilla bat topatu ditzakegula.

**Non bildu dizkigute arraina, haragia, fruta, barazkiak... ? Erantzuna plastikozko poltsak bada, hona hemen elikagaiak biluzteko hilabete honetarako aholkutxo pare bat:**

1

**Fruta, barazkiak, fruitu lehorrak,... biluzik pisatzea eskatu, eta zuzenean zure zorroan sartu. Hori posible ez balitz, eraman itzazu etxetik oihalezko poltsak (aukeran gardenak) eta dendariari eskaini esanez ez duzula plastikozko poltsarik nahi.**

2

**Harategi eta arrandegiari dagokionez, eraman itzazu etxetik tuperrak eta zuzenean hor jar dezatela urdaiazpiko, solomo, arrain edo aukeratutakoa. Horrela, plastikoari muzin egiteaz gain, denbora ere aurreztuko duzu, etxerakoan tuperra hozkailuan zuzenean sartu besterik ez duzu egin beharko eta.**

Hilabete honetan zure elikagaientzako jantzi berri eta iraunkorrak bilatu!

**Lurra**

Plastikoak Zumaiako hondartzan: <https://www.youtube.com/watch?v=7SQQXDYltd0>



▲ Taperra



# Liburutegiko

## Ardo dastaketa literarioa

Bigarren aldiz egin dugu liburutegian ardo dastaketa literarioa, arrakasta handiz berriro

(eta espero dugu bakarrik ardoagatik ez izatea!). Aurten, irailaren 27an izan zen hitzordua eta protagonistak, pasa den urtean bezala, Carlos Ollo idazlea, eta Alberto Dito, ardoan aditua. Ollok nobela beltzako hiru idazleri eta haien liburuei buruz hitz egin zigun (behean aipatuko ditugu) eta Alberto Ditok hiru ardo ekarri zizkigun, dastatzeko eta irakurketa horiek girotzeko (ardoak, aldiz, ez ditugu liburutegian, lastima!). Oso modu atseginean eta naturalean azaldu ziguten biek liburuen eta ardoen bitxikeriak eta ezaugarriak... Eta ikasi genuen "yatearen teoria", hau da: askotan ardo baten inportanteena da non, noiz edo norekin edan

(adibidez, euro bateko ardo bat munduko ardorik gozoena eta sofistikatuena izan daiteke yate batean edanda). Gauza bera gertatzen da liburuekin (ideia hau guk asmatutakoa da). Hamabost urterekin liluratuta irakurtzen duzun liburu edo egile batek agian xarma osoa galdu du 50 urte dituzunean. Eta aldrebes. Baina barkatu, hau bigarren ardoa edan eta gero bururatu zitzaidan. Hobe da, beraz, hiru idazleak eta ardoak aipatzea eta beste albiste batera pasatzea (aurretik esanez, hori bai, dastaketa literario hauek ohitura bihurtzea eta hemendik hilabete batzuetara errepikatzea espero dugula; hurrengo, agian, ardoarekin izan ordez, garagardoarekin -hori, jakina, ez du garrantziarik, inportanteena liburuak dira-). Hauek dira aurtengo liburuak eta ardoak:

**Ardoa: Horola**

**Egilea: Carlos Bassas**

(liburutegian irakurgai da Soledad bere eleberria)



**Ardoa: Tormento**

**Egilea: James Elroy**

(liburutegian irakurgai da L.A. Confidential bere eleberria)



**Ardoa: Rosso de Montalcino**

**Egilea: Wilkie Collins**

(liburutegian irakurgai dira bere eleberriak La piedra lunar, La dama de blanco, Armadale eta El hotel de los Horrores)







## Azaroan, ipuin kontaketa eta antzerkia

Nafarroako Gobernuko bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen zuzendaritzak eta Nafarroako liburutegien zerbitzuak bultzatuta, azaroan izango ditugu liburutegian bi ekitaldi, biak euskaraz: ipuin kontalari bat eta antzerki forum bat. "Bakea eta bizikidetzaren lantzen duten liburutegiak" egitasmoren barnean daude eta helburua aniztasuna eta bizikidetzaren lantzea da. Ipuin kontaketa 5 eta 9 urte arteko umeendako bideratuta dago eta **1, 2, 3... Ubuntu!** du izenburua. "Ubuntu duen pertsona bat ire-

kia da eta beti prest dago besteei laguntzeko", zion Desmond Tutu Nobel saridunak. Eta Izaskun Mujika ipuin kontalaria Ubuntuz infektatzera etorriko da liburutegira, hain zuzen ere. Ipuinez, haikuz eta olerkiez baliatuta aniztasunezko istorio bat kontatuko digu. Eta denon artean hiru dimentsioko maskota bat presatuko dugu. **Azaroaren 15ean, ostiralarekin, 18:00etan** izango da ekitaldia liburutegian bertan.


Antzerki forumari dagokionez, arrazismoa eta xenofobia bult-

zaten dituzten hainbat egoera antzeztuko dira eszenatokian, eta gero parte hartzera eta hausnartzera gonbidatuko ditu ikusleak. Kasu honetan 16 urte baino gehiago dituztenendako pentsatuta dago jarduera eta gutxienez 10 lagun behar dira, beraz animatu nahi zaituztegu etortzera eta baita aurrez aldetik izena ematera ere, helbide honetan: [liburutegia@ultzama.es](mailto:liburutegia@ultzama.es). **Azaroaren 29an, ostiralarekin, izango da antzerkia, 19:00etan**, Larraintzarko Gizarte Etxeko areto nagusian.

## Euskadi sariak

Patxi Zubizarretak (euskarazko ume eta gazte literaturan), Irati Elorrietak (euskarazko literatura) eta Asisko Urmenetak (ilustrazioan) irabazi dute aurtengo Euskadi sariak. Oraindik ez ditugu liburutegian saritutako lanak, baina bai egileen hainbat lan, eta eskura jarri ditugu zuek ezagutzeko. Artikulu hau idazten dugun unean oraindik ez da jakitera eman falta diren saridunak (gaztelaniazko literatura edo entsegua), baina datorren kolaborazioan jakinaraziko dizuegu beste nobedade batzuekin batera. Ordura arte, ongi izan, eta ongi irakurri!

 **Patxi Irurzun**  
Ultzamako liburuzaina



▲ La gente honrada, Jean-Pierre Gibraten komikiaren irudia

# 2019ko iraila

## Gure alderdian, irailean izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

### Jaiotzak:

#### ANUE Aritzu

Udane Arretxea Mariñelarena, Asier eta Anaren alaba, irailaren 7an sortu zen, Aritzuko **Goitikoetxeberrin**.



▲ Aritzuko gazteena, Udane

#### IMOTZ Latasa

Mateo Isaac Gómez Ruiz, Walter eta Rixiren semea, irailaren 5ean jaio zen, **Apezetxean**.



▲ Latasako familia honetara, hirugarren haurra

#### ULTZAMA Auza

Irai Intsausti Orotz, Tomas eta Ainhoaren semea, irailaren 24an sortu zen, **Tabernazarrean**.



▲ Irai etorri zaigu familia handitzera

### Ezkontzak:

#### BASABURUA Orokietza

Euken Mindegia Otxandorena, Oronozkoa, eta Sandra Balda Biurrun, Orokietako **Baldan** etxekoa, irailaren 21ean ezkondu ziren. Orokietako **Apezetxean** biziko dira.



▲ Sandra eta Euken

#### ULTZAMA Auza

Asier Beratsain Agirre, Auzako **Agirre etxekoa**, eta Nora Ramoneda Arregi, Igoako **Etxezarrekoa**, irailaren 21ean ezkondu ziren. Iruñean biziko dira.

“Mila zorion ezkonberriei”

“Zorionak gurasoei”

### Heriotzak:

#### ULTZAMA Eltzaburu

Iñaki Larraiotz Herranz, irailaren 3an hil zen, 42 urtetan.



▲ Iñaki Larraiotz

“Gure oroimenean izanen zara”



**NEUMÁTICOS BETELU**

**646 47 41 66**

**Juan Alonso Ortiz**

Taller Mugikorra

Neumatikoen aldaketa

Zulatutako neumatikoen konponketa

Zuk nahi duzun tokira joango gara zure  
neumatikoak konpontzera  
Kostu gehigarririk gabe, kontsultatu prezioak  
Nafarroan eta Gipuzkoan lan egiten dugu

Erdiko karrika, 8A · Aizarotz (Basaburua) · Info@neumaticosbetelu.es

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK · PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



**KARRIKOLAR**  
ELEKTRIZITATEA

**629 31 53 32 · 722 766 835**

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A  
KENTZEA**

**FATXADAK  
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA  
(IMPERMEABILIZACIONES)**

**DAVID ELIZONDO PINTURAK**  
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA  
ETA  
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA  
KONPROMEZURIK GABE**

**678623866**

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



Utzamaldeko

# eskulangileen

1. AZOKA 2019

**Noiz:**

Abenduaren 1a

**Orduategia:**

Goizeko 10etatik eguerdiko biak artio

**Tokia:**

Larraintzar (Utzamako pilotalekua)